

## **MAIZ EGITEN DIREN GALDERAK (FAQ):**

---

### ***- Zer da Elikadura Osasungarrirako Ekimenen Programari atxikitzea?***

Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Ekimenen Programaren helburuak lortzeko eta gomendioak aplikatzeko ahaleginetan laguntzeko konpromisoak hartzen dira, hala nola:

- Egunero fruta eta barazki gehiago jatea, batez ere hurrek eta gazteek.
- Gatza, azukre eta koipe saturatu gutxiago jatea.
- Kaloria gutxiago kontsumitzea.
- Elikadura osasungarriaren inguruko informazioa hobetzea.
- Elikadura osasungarriaren inguruko kontzientziak hobetzea herritarren artean.
- Euskal herritarren elikadura osasungarrien alde lan egiten duten agenteek sarean eta lerrokatuta jardutea lortzea.

Proposatutako proiektua ebaluatu ondoren Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Ekimenen Programan ezartzen diren helburuekin bat datorrela erabakitzen bada, berari atxikita geldituko da; horretarako, web orrian txertatuko da, hartutako konpromisoen laburpentxo erantsita.

### ***- Nortzuk atxiki daitezke?***

Euskadiko elikaduran eragin ona izan dezaketen enpresa, agente, antolakunde eta talde guztiak, hala nola:

- Elikagaien sektoreko industriak eta dendak, elikagaiak sortzen, banatzen zein saltzen dihardutenak.
- Gizartean eragina duten informazioekin eta ezagutzekin zerikusia duten pertsona eta entitate guztiak.
- Euren esparruan elikadura osasungarria bultzatu nahi duten taldeak.

### ***- Zer egin behar da Programari atxikitzeko?***

Programari heldu nahi dioten pertsona, enpresa, entitate zein bestelakoek berriaz prestatutako formularioa bete behar dute; Eusko Jaurlaritzaren egoitza elektronikoan eskura daiteke.

<http://www.euskadi.eus/informazioa/elikadura-osasungarriaren-aldeko-ekimenak-euskadin-programari-atxikitzea/web01-a2osabiz/eu/>

Konpromiso bati atxikimendua adierazitako ekimen bakoitzeko, eskaera bat bete beharko da. Konpromiso bat → eskaera bat.

### ***- Badago eperik eskaera aurkezteko?***

Ez, ez dago inolako eperik. Beraz, noiznahi erabaki daiteke Euskadiko Elikadura Osasungarrirako Ekimenen Programari atxikitzea.

- *Zer gertatzen da eskaera aurkeztu ondoren?*

Proiektu bat Programari atxikitzeko eskaera jaso ondoren, Planaren Kudeaketa Unitateko teknikariek aztertuko dute. Ebaluazioaren emaitza izan daiteke proiektua Programan sartzeko egokia dela edo ez dela, edo informazio gehiago behar dela ebaluazioa osatzeko.

o *Ebaluazioa positiboa izanez gero:*

Eskaera onartzen bada, eskatzailearekin harremanetan jarriko gara eta beraren proposamen Planari atxikitako proiektuen zerrendan sartuko da: web orrian txertatuko da, hartutako konpromisoen laburpentxoaren erantsita. Gainera, hartutako konpromisoen jarraipenerako zer prozedura aplikatuko den erabakiko da.

o *Dokumentazioa osatu behar izanez gero:*

Behar diren dokumentuak eskatuko dira eta eskaera berriz ebaluatuko da ebazpena positiboa edo negatiboa izango delarik.

o *Ebaluazioa negatiboa izanez gero:*

Txosten negatiboa bidaliko zaio eskatzaileari; bertan ebazpenaren arrazoiak azalduko zaizkio eta berriz parte hartzeko gonbidapena egingo zaio.

- *Zer baloratuko da nire proiektuan?*

Proiektuak ebaluatzen dituen taldeak horretarako ezarritako irizpideak aplikatuko ditu, kasuan kasukoak proiektuaren izaeraren arabera. Oro har, honako alderdi hauek baloratuko dira:

- o Proiektua bat datorren Euskadiko Elikadura Osasungarriko Ekimenen Programan ezartzen diren helburuetako batzuekin.
- o Edukiak eta helburuak ondo zehazten diren.
- o Proiektuaren helburuak egokiak, eskuragarriak, neurgarriak eta garrantzitsuak diren.
- o Ezartzen diren epeak betetzeko modukoak diren. Hori dela eta, aintzat hartuko da helburuak, tartekoak badira ere, 1.000 egun baino lehen lortu ahal izatea.
- o Ondo zehaztu den ala ez proiektua noizentzat den, zer material beharko den eta zer egin behar den helburuetara iristeko.
- o Proiektua bakarka edo beste batzuekin lankidetzan egingo den.
- o Proiektuak elikadura osasungarria izateko arreta berezia eta erraztasunak ematen dizkien osasun-alorreko desberdintasun sozialei, esate baterako, klase soziala, adina, generoa, bizi-lekua, etnia edo kulturaren arabera egoera txarrean dauden kolektiboak.

- *Nolako estrategiak datoz bat Programarekin?*

Adibide gisa, honako estrategia hauek egokiak izan litezke Programaren helburuetarako, besteak beste:

- o Produktuen formulazioa edo errezetak edo menuak aldatzea.
- o Hornitzaileei produktuak edo errezetak aldatzeko eskatzea.
- o Promozio edo eskaintza osasungarriagoak prestatzea bezeroentzat.
- o Elikagai osasungarrien eskuragarritasuna eta eskaintza hobetzea.

- Elikagaien liburuxketan, karteletan edo ontzietan informazio zehatza ezartzea.
- Haurrak eta gazteak elikadura-azturez kontzientziatzea eta ohitura horiek hobetzea.
- Elikaduraren inguruko informazio tekniko eta aholkuak hobetzea, ebidentziak oinarritzat hartuta, alde batera utziz zorrotzasun gutxiko eta profesionaltasun urriko informazio-iturriak.
- Herritarren trebeziak lantzea: errezeta osasungarriak sortzea, janariak prestatzeko aholkuak, elikagaien etiketak irakurtzea, tailer praktikoak, sukaldaritza-ikastaroak.
- Elikagaiak prestatzen, saltzen edota zerbitzitzen lan egiten duten enplegatuak trebatzea.
- Jardunbide eta tekniken gaineko informazioa zabaltzea (adib.: gatz gutxiago kontsumitzea), sektore guztietan aurrerapenak lortzeko.
- Sasoiko eta tokian tokiko frutak eta barazkiak kontsumitzeko kanpainak egitea.
- Elikadura-osagarriak kontsumitzen dituzten pertsonak kontzientziatzea hartzen duten arriskuaz, bai eta osagarriok gomendatzen dituzten profesionalak ere.
- Herritarrei informazioa ematea eta gai hau ulertzen eta mobilizatzen laguntzea ekintza-agenda koordinatu baten bidez (web orria, TB, irratia, prentsa idatzia).
- Programaren helburuekin bat datozen mezuak zabaltzea modu aktiboan, "elikadura osasungarriaren nodo" bihurtuta (Euskadin elikadura osasungarriaren alde ari diren agenteak).
- Elikadura osasuna hobetzeko eta patologiei aurrea hartzeko faktore moduan sartzea; horretarako, prestakuntza eta kualifikazioa bultzatu behar dira, irizpide eta mezu homogeneizatuak erabiliz eta gaixoen egoera eta bizipen pertsonala kontuan hartuz (osasuneko profesionalak).

*- Zer gertatuko da konpromisoak betetzen ez badituz?*

Eskatzaileak ez baditu konpromisoak betetzen atxikitze-itunetik KANPO gertatuko da, eta Elikadura Osasungarriaren aldeko Ekimenak Euskadin izan duen parte-hartzearen erreferentziak ezabatu egingo dira.

Hori ez gertatzeko, eskatzaileak epeak amaitu baino lehenago azal ditzake zergatik ez dituen helburuak bete, eta kudeaketa-unitatearekin adostu beharko du nola berrantolatu guztia.

*- Non aurki dezaket Euskadiko Elikadura Osasungarriaren Ekimenen aldeko programari buruzko informazio gehiago?*

Lotura honetan dokumentu osora eta eranskinetara sar zaitezke.

<http://www.euskadi.eus/informazioa/elikadura-osasungarriaren-aldeko-ekimenak-euskadin/web01-a2osabiz/eu/>